

**ALKATETZA  
DEKRETUA**

Esp.: 2018/IDA\_DEK0167

2018 000000271

Xedea

2018ko martxoaren 14ko Osoko Bilkurako deialdia.

**Argudioak**

**Bakarra:** Alkatetzak Osoko Bilkurako deialdia egiteko eskumena dauka, legeria honen arabera:

- Apirilaren 2ko 7/1985 Toki Araubidearen oinarriak arautzen dauzan Legeak, 21.1.c) artikulua
- Azaroaren 28an 2568/1986 Errege Dekretu bidez onartutako Toki Entitateen Antolamendu, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiak (AFA) 112. eta ondorengo artikuluetan xedatutakoa.

**Erabagia**

Goian aitatutakoa kontuan hartuta, honako hau erabagi dot:

**LEHENENGOA:** Osoko Bilkura osatzen daben zinegotziak deitzea ohiko batzarrera.

**BIGARRENA:** Deialdia Alkatetza Dekretu honen eranskinean agertzen diran zehaztasunen arabera deitzea eta bertan agertzen dan gai zerrendea osatzea. Ikusi 1. eranskina.

**HIRUGARRENA:** 1. deialdian quoruma izateko zinegotzi nahikorik egon ezean, batzarra automatikoki egun bi geroago eta ordu berean deitzea.

**LAUGARRENA:** Jakinaraztea zinegotzietan asistentzia nahitaezkoa dala, bertaratzea galarazten dauen arrazoi justifikaturik egon ezean.

**BOSGARRENA:** Jakinaraztea data honetatik aurrera, udal honetako Idazkaritzan eskura dagozala gai zerrendako gaiakaz zerikusia daukien espedienteak.





## BATZAR DEIA

|                           |  |
|---------------------------|--|
| <b>Deitutako organoa:</b> | Osoko Bilkura                            |
| <b>Batzarra:</b>          | Ohikoa                                   |
| <b>Deialdia:</b>          | 1. deialdia                              |
| <b>Eguna:</b>             | 2018-03-14 (Asteazkena)                  |
| <b>Ordua:</b>             | 17:30                                    |
| <b>Lekua:</b>             | Gizarte eta Kultura Etxeko<br>Gaztelekua |
| <b>2. deialdia:</b>       | 2018-03-16 (Ostirala), 17:30             |


### GAI ZERRENDEA

- 2017ko abenduaren 22ko aktea irakurri eta onestea.
- Landabaso industrialdean, 24 areako 1N partzelako xehetasun azterlana. Alegazinoak erantzun eta behin betiko onartu.
- Bermeoko Udaleko herri-argiteria instalazioen energia-zerbitzuak, mantenu eta berme osoagaz, kontratua esleitzea.
- Busturialdeko Ur Partzuergoko estatutuen aldaketa onartzea.
- Bermeoko Udaleko araudi plana eta araudiak zein ordenantzak sortzeko prozeduran alde zuzeneko kontsulta publikoa xedatzeko gidalerroak onartzea.
- Diru- laguntzen plan estrategikoa onartzea.
- Bermeoko Euskararen Plan Estrategikoa (2018-2022) onartzea.
- Euskara Sustatzeko Ekintza Plana (ESEP): 2018ko kudeaketa plana onartzea.
- 2017ko aurrekontuko 4. hiruhilabeteko fakturei buruzko kontu-hartzailetzaren txostenaren barri emotea.
- 2017ko aurrekontuko 4. hiruhilabeteko hornitzaileen ordainketen barri emotea.
- 2017ko aurrekontuko 4. hiruhilabeteko ordainketei buruzko diruzainaren txostenaren barri emotea.



- 12.2017ko **abenduko** Alkatetza Dekretuen barri emotea. 1381 zenbakitik 1487 zenbakira.
- 13.2017ko **abenduko** Ekonomia Saileko zinegotzi delegatuaren dekretuen barri emotea. 452 zenbakitik 483 zenbakira.
- 14.2017ko **abenduko** Diruzaintzako dekretuen barri emotea. 40. zenbakitik 46. zenbakira.
- 15.2017ko **abenduko** Urigintza Saileko zinegotzi delegatuaren dekretuen barri emotea. 68. zenbakitik 71. zenbakira.
- 16.2018ko Dekretuen barri emotea. 1 zenbakitik 266 zenbakira.
- 17.Tokiko Gobernu Batzarraren erabagien barri emotea: urtarrilaren 8, 17, 22 eta 29ko erabagiak, otsailaren 5, 15, 19 eta 26koak eta martxoaren 5ekoak.
- 18.Ganerako organoen kontrola.
19. Eskari eta itaunak.

*Orri-oinean sinatzailea eta data.*

|  |   |   |  |
|--|---|---|--|
|  <b>STEMMA PRODERI</b><br>IN PRIMIS BERMEI | Agiri hau benetakoa da, eta<br>07E20000BE4400P8Z1B4Z6H5D2<br>kodeagaz egiaztatu daiteke<br>Udalaren egoitza elektronikoan | <b>SINATZAILA eta DATEA</b>   | <b>EXPEDIENTE::</b><br>2018IDA_DEK0167<br>Data: 09/03/2018<br>Ordua: 00:00<br>Und. reg:REGISTRO<br>GENERAL |
|  |   | IDURRE BIDEGUREN GABANTXO(P4802100J-Ayuntamiento de Bermeo - Bermeoko Udala)-Alkatea -<br>09/03/2018<br>CN=tsa.izenpe.com, OID.2.5.4.97=#0C0F56415445532D413031333337323630, O=IZENPE S.A., C=ES -<br>09/03/2018 13:23:05 |  |

